

## ***SEGURTASUN KAMERA HEGALARI KAMUFLATUA***

### **8. FUNTSEZKO BALIABIDEAK**

Gure enpresaren balorezko proposamena egin ahal izateko, bezeroengana iristeko eta bezeroenganako harremana izaten jarraitzeko eta diru sarrerak lortzeko behar ditugun baliabideak dira funtsezko baliabideak. Gureak honako hauek izango dira:

**BALIABIDE FISIKOAK:** Gure baliabide fisikoen artean aurkitu ditzakegu kamarak, dronak, gure enpresaren eraikina (Madrilen egongo da), ofizinak: 7 metroko luzera eta 16ko zabalera izango dute, bertan langile bakoitzeko mahaiak, aulkiak eta ordenagailuak egongo dira eta gure produktua salduko ditugun lekutan kokatuko dira, hau da, aipatutako autonomi-erkidegoetan. Arazo bat izaten baduzu gure langileek konponduko dizute.

**BALIABIDE INTELEKTUALAK:** Gure baliabide intelektualen artean, webgunea, gure marka etab.

**GIZA BALIABIDEAK:** Gure enpresan lan egingo duten langileak. Produktua sortuko duten mekanikariak eta informatikariak, segurtasun zaindariak, kamarak kontrolatzen dituzten teknikariak eta gu, jabeak.

- Gure enpresan, administratzaile bat kontratatuko dugu, hau da, kontabilitateari buruzko beharrezko ezagutzak dituen pertsona bat. Pertsona horrek negozioaren aktiboak kontrolatuko ditu. Horrela, enpresaren irabaziak eta zorrak behatu ahal izango ditugu. Hasieran, administratzaile horrek dagokion gutxieneko soldata izango du, baina enpresak gora egin ahala, soldata igotzeko aukera ikusiko dugu, irabazi gehiago lortzen hasten bagara.(langile 1)
- Kamarak egingo dituzten langileak izango ditugu, eta horiek muntatzeaz baino ez dira arduratuko(35 langile)
- Publikoari begira egongo direnak, bai telefonoz bai direktuki, bezeroek arazo bat baldin badute haiekin kontaktuan jarri haien arazoak konontzen saiatuko direnak.(15 langile)
- Kamarak saltzen ditugun web orrialdeaz arduratzen direnak, dena ondo joan dadin.(3 langile)

**FINANTZA BALIABIDEAK:** Lortuko dugun dirua gure enpresa martxan jartzeko hurrengo finantza balibedeetatik aterako dugu:

- Gure produktuen salmentetatik aterako dugun dirua.

## ***SEGURTASUN KAMERA HEGALARI KAMUFLATUA***

- Madrilen dagoen 30 urte baino gutxiagoko ekintzaleei emandako diru-aguntzatik, non, 15.000 euro eskuratuko ditugun.
- Bankia bankutik eskatuko dugun kreditutik. Bertan, 60.000 euro eskuratuko ditugu. Interesa bi tramuen bidez aplikatuko digute: Lehen tramoan, Eurborra + %3,25 ordaindu beharko dugu eta bigarrean, gure enpresaren errentabilitatea kontuan hartuko dutenez %3 eta %6 artekoa izango da.